

# KATTUREN OMENEZKO XXI. XAKE TXAPELKETA.

2005.go abenduaren 18an jolastu zen (igande goizean), Azkoitiako Errexil tabernan (Gipuzkoa). Banakako Txapelketa izan zen (5 minutuko partidak). Parte hartzaileak: 17. Beren mailaren arabera, bi multzotan banatu ziren.

**A multzoan, J. J. Larrañaga izan zen irabazle, 6'5 puntuz.** Manuel Paredes bigarren izan zen, 5'5 puntuz. Hirugarren, Egoitz Irure, 4 puntuz.

**B multzoan, Héctor Fernández irabazi zuen, 8 puntuz.** Haizea Alberdi bigarren izan zen, 6 puntuz. Eneko Etxaniz, hirugarren, 5 puntuz.

GALek erahildako Katturen gurasoek trofeoak banatu zituzten. Giro ona bizi izan zen Azkoitiko torneo honetan.

**2005-12-18.**

**Iturria: Gipuzkoako Xake Federakundea.**